



# Lehen Hezkuntza

## Printzipio orokorrak

Derrigorrezkoa eta doakoa da. Bi ikasturteko hiru ziklo hartzen ditu barnean. Izaera orokorra eta barne-hartzailea duten hainbat arlotan banaturik dago.

## Xedea

Haurren garapen pertsonala eta ongizatea finkatzeko, ahozko adierazpenaren eta ulermenaren, irakurketaren, idazketaren eta kalkuluaren inguruko oinarrizko kultura-trebetasunak eskuratze-ko, eta gizarte-trebetasunak, lan-ohiturak eta ikasketa-ohiturak, sen artistikoa, sormena eta afektibitatea garatzeko aukera emango dien hezkuntza ematea.

## Arloak

Etap horretako ziklo guztietan irakasten diren arloak hauek dira:

- Ingurumenaren, gizartearen eta kulturaren ezagutza.
- Arte-hezkuntza.
- Gorputz-hezkuntza.
- Gaztelania eta literatura.
- Euskara eta literatura.
- Atzerriko hizkuntza.
- Matematika.
- Erljioa (nahi duenarentzat)/Hezkuntza Arreta (beste arloei eta erlijioari loturiko edukirik gabekoa).

Etaparen hirugarren zikloan, ikastetxeek bigarren atzerriko hizkuntza gaineratu ahal izango dute.

Hirugarren zikloko azken ikasturtean, *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza* arloa gaineratuko da.

Arlokako antolamendua etaparen izaera orokorraren kalterik gabe ulertuko da.

Lehen Hezkuntzako maila bakoitzari dagokion ordutegia urteko 875 ordukoa izango da, gutxienez.

Azkenik, Lehen Hezkuntzaren bigarren zikloa amaitzean, diagnostiko-ebaluazioa egingo zaie ikasleei. Ebaluazio hori prestakuntzazkoa eta orientatzailea izango da ikastetxeentzat, familiei informazioa emateko balioko du, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kontuan izango du lortutako informazioa ikasleenganako arreta hobetu eta horiek oinarrizko gaitasunak lortzea bermatzeko.

# Lehen Hezkuntza



## Sustapena

Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitza amaitzean, irakasleek erabakiko dute ikasle bakoitza mailaz igoko den ala ez.

Ikasleek oinarrizko gaitasunak eta heldutasun-maila egokia lortu badituzte, hurrengo heziketa-ziklora edo etapara igaroko dira, baita gainditu gabeko irakasgaiak dituztenak ere, baldin eta horrek ikasturte berria probetxuz egitea eragozten ez badie.

Ikasle batek oinarrizko gaitasunak lortzen ez dituen kasuan, ziklo berean beste ikasturte bat egin ahal izango du. Neurri hori behin baino ez da hartuko Lehen Hezkuntza osoan, oinarrizko gaitasunak indartzeko edo berreskuratzeko berariazko plan batekin.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igaroko dira oinarrizko gaitasunak eta heldutasun-maila egokia lortu badituzte. Gainditu gabeko irakasgaiak izanda DBHra igaroko dira, baldin eta horrek etapa berria probetxuz egitea eragozten ez badie.

Adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten ikasleek ezingo dute DBHra igaro, non eta ez duten ordurako zikloetakoren batean urtebete igaro.